

## ARGAZKIAK, HISTORIAREN LEKUKO

Indaleki Ojangureni, mendeurrenean.

Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duela, txinosen esateratzen zaizkiguna dugu. Baina irudiok haurtzaroko oroitzapenak ekarri badatoz, gogoetak berez hitz jarioa. Holako zerbait nabari zait Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalak eskuratzen digun album honetan.

Errepublikaren etorrera inguruan ditut nere lehen oroitzapenak. Primo de Riveraren agintaritzak azken muga jotzeaz, orduan haur ginenok Errepublikaren beharra entzuten genuen maizenik. Oraindik ez nuen bereizten, Errepublika, politikari pertsonaiaren bat zen ala beste zerbait, baina gure haurtzaroko Eibarren pil-pilean zebilen horren beharra eta, giroak eragirik, mutiko ginenok ere horren alde. Batez ere, «Biba la Republika!» eta «Biba la libertad!» oihukatzea debekaturik zegoela jakiteak adore gehiago ematen zigun. Beti gure bihurrieren kontra ari ziren uniforme jantzidunak, naiz aguazil, mikelate, zein guardia-zibilen aurrez-aurre adineko gizonak lagunkide ikusten bai genituen. Nork zekin gure ekintza bihurriak zuzentzen hartuko ez ziren?

Behin batean, egunsenti aldera, gurasoek esnatu ginduzten anaia eta biok: «Errepublika etorri da!». Ohetik salto batean jaiki, ahal bezain aguroen jantzi eta brageta lotzeka astirik gabe aintzintzika Untzaga plazara. Han, Kontzeju berriko balkoiko haga handian, proportziorik gabeko trapu aski txiki bat banderatzat zintzilik. Betiko koloreetatik bazuen bereizkuntza. Koloreok hiru ziren eta ez bi; azpirengoa guk orduan ezin igarria Bergarako urdin iluna ala morea zen. Plaza ordea, jendez erdi beterik eta jai hotsa inguru guzian. Musika banda deitua omen kale-jirarako eta batzorde bat prest Guardia Zibilen kuartelera bandera berria eramateko, han ere ipini zezaten (hirugarren argazkia da egun horretakoa eta han zen Ojanguren erreportaia irudiz lekukotzen). Gu, oso urduki genbiltzan, denera adi, eguzkia irtetzen ari zenean. 1931ko apirilaren 14.eko Eibar historiarako gelditu da.

Hasieran datozen argazkiok ez dire egun hortakoak, Guardia Zibilen kuartel aurreko hori baizik. Ondoko egunetan Gobernuak «Ciudad Ejemplar» izendatzea erabakiz Untzaga Plazari, «Plaza de la República» jarri ziotenekoa da bata, erlojuaren frontoipean ageri da iragarki berriaren agerpena. Aurretik, «Plaza de Alfonso XIII» zen, aurrerago nonbait, Kontzeju berria egitean, «Plaza de la Constitución» omen zen, Orainago «Plaza de 18 de Julio» ezagutu dugu; baina, guretzat beti Untzaga plaza.

Ez dakit Hiri Eredugarria zen, baina titulu hori eman ziguten ohore handiz: «Ciudad Ejemplar». Gorespenik anitz egin ziguten Errepublika etorri berrian. Kontzejuko balkoi hortatik mintzatu ziren. N. Alcalá Zamora, F. de los Ríos, J. Asúa, I. Prieto,... eta, beste zenbait politikorekin batean, M. Unamuno katedratikoa eta G. Queipo de Llano militarra bera. Hamaika ikusteko jaio ginen. Hitzaldi haien bukaeraz, Untzaga plaza beteak «Gernikako Arbola» kantatzen zuten Indalezio Prietoren eskariz.

Egun alaiak haiek; baina, gero zetozten ordainak. Itxaropenaren argia itzaliz joan zen Errepublikaren garaian. Krisia, lanik eza, ... egun ilunak eta maiz hor agertzen zaigun erako manifestazioak kalez-kale. Ondorean gerrarik tristeena sortuko zen, anai artekoa. Zibilizaziotik urrutien egonarren, gerra horri, zibila deitzen zaio. Azkenean, zigorra.

Gezurra badirudi ere, armaginen baketsu bizi nahia eten zen. Hala ere, armerriak izakiz, Errepublikaren alde armatu beharra heldu zitzaion. Gerrarako prestakizunen artean, kamioiak txapaz forraturik nola jartzen zituzten ikusi genituen. Donostian militarrek eta falanjistak jaiki zirenean, haiek menperatzeko gertakizunak ziren. Arratsalde triste batean milak eta milak, gizon eta gazte, blindatutako kamioiak aurretik zirela, autobus, kamioi, autoz eta trenez, bakoitzak ahal zuen erara; karabina, rifle, pistola, eskopeta,... ahal zuen ahal zuena eskuratuz eta gainerakoak esku hutsik, Gipuzkoako hiribururuntza abiatu ziren, ezjakinon begirada txundituaren aurretik igaroz, txangoz zijoaztenen gisa. Gobernadore Militarra nahi zuten ihizatu. Hasia zen odol isurketa, historiaren aro beltza.

Bai, Donostia berreskuratu zen, baina ez luzarorako, eta laster ziren gureok atzerunzka. Ziotenez, nafarrak zetozen hobeto armaturik eta lehen zaurituak zekarzten Eibarko Asilo-Ospitalera, balaz edo metrailaz joak odola zeriela. Asilo-Ospital hura zen herriko umezurtz, elbarri, ezindu eta tontoen babesleku. Tontoak, sarrerako atean aurrenengo egoten ziren zauriz odolduak kamilaz ekartzen zituztenei begira, Karlos, Bitorino, Kornelio eta gainerako giza-joto tonto haiek, guztiz harriturik han gertatzen zenaz, sinistu ezinik, esaten zutelarik: «Zer pasatzen dok munduan? Guztiak zoratu dittuk ala?». Hor ba, tonto koitauak arrazoiak.

Gerra hasi baino lehen piztua zen nere gogoan mendizaletasuna. Izan ere, Eibarko zulotik nora irten mendira ezik? Ez bai zen oraingo aukerarik inguruetara hain erraz ibiltzeko. Artean, autoak aberatsenak ziren, eta trenak aski garestia. Gure lehen hegatzadak Arrate, Galdaramiño, Azkonabieta, Urko, Kalamua, Egoarbitza, Intxorta,... eta inguruko gailur tipiagoetara mugatzen ziren. Kortazarko gailurrari Karakate deitzen genion, bere ekaldekoko hegian izen horrekin baserria zenez, Elgoibar aldetik. Oroitzen naiz behin espedizio bat nola eratu genuen Irukurutzetaraino, taldeko zaharrenak hamairu urte besterik ez zituelarik eta balentria handizatzen genuen eskolan. Horiatarako informazioa erraz lortzen genuen Club Deportivo mendizale sailean eta mendien imajina Ojangurenen galerian; biak Untzaga plazatik bertan.

Bi urte barru beteko dira Louis Jacques Mandé Daguerre mundura etorri zela, eta 1839rako zenbait ikerketa burutuz asmatu zuen irudigailua bere euskaldun deituraz (d'Aguerre irakurtzen badugu) bataiatu zuen *Daguerrotipo*. Ondotik, Talbot, Scott Archer, Maddox, Eastman eta bestek ekarri zituzten hobekuntzak, hogeigarren mendeko gizarteari zernahitarako beharrezko izango zitzaion argazkiez. Aise zabaldu zen munduan egunetik egunerako teknikaren aurrerapenez. Album berau dugu horren lekuko.

Baina, guretzat, Ojangurenen «galeria», horma guziak bitrinaz beterik eta horiek mendien argazkiz, erakusketa iraunkortzat genuen. Indalezio Ojanguren ez zen izan Eibarko lehen argazkilaria, baina bai fotografiaren zabalkundea gehien bultzatu zuena. Automatikorik ez zenean, ordez, berak asmatu mekanismo arrunten baliatzen omen zen, hariz tiratuz disparatzeko. Baita ere ausartzen zen partidoak gelarazi eta bere tramankulu guziak jendearen aurrean jarri, jokatzeko ari ziren itxurak eginaz argazkiak lortzeko. Horregatik etorri zitzaion, denbora batean *ABC*-ko argazkilaria ospetsua zen Duque jauna, galdezka: «Zelan konpontzen zara zu pelotariak naiz foballistak holako ondo ateratzeko?». Erantzuna: «Tripodiakin».

Beretzat dena zen interesgarri eta uste zuen besterentzat ere hala behar zuela. Aintzina Kodak etxeak erabiltzen zuen slogan hura maiz aipatzen zigun mendizaleei: argazkirik gabeko oporrak, opor galduek. Joaten ginen tokietara joaten ginela, argazkirik ez ekartzea, pekatu mortala, zeren oroitzapenen etendura iruditzen zitzaion. Neri ere, foilezko kamara bat saldu zidan, lehen berak erabiltzen zuena, hutsa prezioan, ahal nuenean ordaintzeko, eta ezin banuen: kitto, «tan amigos». Egia esan, Pirineo eta Picos de Europa eskaladak egiten nituen, eta Naranjo de Bulnes tontorraren gailurreraino igotzeko ahalmena izanik, handik ikusia argazkiz ez jasotzea parkamenik gabekoa zeritzon. Gaur ez nuke ezergatik salduko hainbeste maitatzera iritsi nintzenaren kamara zaharra.

Esan bezala, Ojanguren zenerentzat dena zen argazkigai eta horregatik lortu zuen artxibo aberatsa. Gizon kezkatia, bere bizitzan milaka kilometroak oinez ibilia, artxibategirako bilduaz paisajeak, mendi gailurrak, baserriak, torretxeak, jauregiak, harmarriak, elizak, ermitak, imajinak, maila guzietako pertsonaiak, ohiturak, gertakariak, abar eta abar. Mendek erdi bat baino gehiagoko historia bildu zuen. Gainera, oso demokratikoki, ber-berak zionez, ezkerrekoak naiz eskubikoak, aberatsak zein pobreak, guztiei argazkiak eginaz. Horregatik, garai batean argazkiz argitaratzen ziren libururik garrantzizkoenetan ikus ditzakegu bere lorrata, —oraingo album honetan ere hala nabari da— eta egunkarietan zer esanik ere ez. Guztiagatik, ondo merezia zuen Eibarko Club Deportivoak omenaldia eskaintzean nazio mailako argazki lehiaketa antolatze hura.

Hizketan berebiziko gatza zuen, eibartar jator bezala. Bere argazkiez interesaturik, Tola de Gaitan eta Ybarra Arriluze markes heraldika zaleak oso lagun egin zituen. Hain heriotza triste eraman zuen Jabier Ybarrak Ojangurenen artxiboa lehen aldiz ikusi zuenean, harriturik esan zion: «Sinistu ezinezkoa da zenbat bihar (lan) egin duzun». Eta honako ihardespenean jaso zuen: «Aa!, don Jabier, zenbat bihar egingo neban nik biharrik egin biharra ez banen». Baina, herriko autubatzaileren belarrietara heldu zen Ojangurenek zelako jaunekin tratatzen zuen. Ezkertiar demokrataren bat kezkatu ere bai, eta hauetako batek, esan ere bai: «Egia dok markesekin eta tratatzen duala?». Baita tximista bezain bizkor erantzun ere: «Nik ez eurekin; eurak nerekin». Beraz, bazen diferentziarik graduatan.

Haren ateraldiak hala izaten ziren; laster erabakitzeak. Badira ordea erabagi ezinezkoak, argazkilaria une larrian jartzeak, zeren itsusia adertzerik ez bai zen zirujia-estetika sortu baino lehen. Itsusiak ez du kulparik hala izan beharrena, baina fotoak ere ez. Oroitzen naiz horietako batek argazkiak jasotzean zioenaz: «Ene! Ojanguren; zelako zatarto atara nozun». Gure argazkilariak, hitzetik hortzera, zuzen: «Ez uste makinaren hutsa danik. Hemen ez dago tranparik. Zaran modukua».

Lehen zatiko hamalau argazkietatik holako oroitzak gogoratzeaz, album honek, Errepublikari garai eta gerra ezagutu zuten guzientzat era askotariko oroitzapenak ekarriko dizkietela iduritzen zait.

Gizarte giroa, urte gutiren buruan, oso aldakorra izan zen. Alde batetik Lezoko Kristo gurutzatuaren deboziozkoak eta, bestetik, Eibarren zibilezko ehorzketak gehituaz joan ziren. Donostiak ordea, bere aristokrata maila gorde nahi, Kursaalaren argazkiak ondotoxo erakusten duenez. Eta, ordurako, Gipuzkoan industrializatzeko handiak sustraiturik ziren. Oinarrizko zitzaizkion Arte eta Ofizio Eskolak gairatutako teknika aurreratuen eskolak abantaila handia hartu zuten. Eibarren, Armeria Eskola, 1913an sortzeaz goraka zetorren gauza zen. Ojangu-  
renen argazkian agertzen dena 1935eko promozio erdia baizik ez da. Egunezko ikasleena uste dut, zeren gauezkoena ere bai zen, lan ordu normaletatik aparte. Eta, lanaren munduak bere prolemak bazituen ere, politika giroa ez zebilen hobeto. Urtetik urtera tentsioa gehituaz zetorren, mindura eta zakarkerien garapenez gerra lehertzeko. Ezkertiarren sigiluz ukabila eta eskubiarrena esku altxatuz, elkar azpiratze gisa. Zein baino zein gehiagoko bereizkuntza haien erdian, abertzale alderdia moderazioaren euskarri bakarra. Guri, hauen jarrera, epelkeria iduritzen zitzaigun; baina, denbora aurrera, arrazoizko jokabidea.

Jolasezko zirudien faszisten gurtze hura, eskua altxatuz, gaina hartzera iritsi zen eta Nazien presentzia ere ikusi zen. Hainbeste ezbeharren artetik Indianokua zeritzan jauregia, argazkian ikus daiteken atari ederrarekin, zutik gelditu zen, Eibarren jauregirik gehienak suntsituz gero. Sebastian Zumaran indianoak 1778an eraikia, Jovellanos-ek aditasunez begiratu; baina, 1952an begirapenik gabe herautsua. Bere atzekaldean hor ageri da, gainekaldetik, Al-datze jauregi barrokoa, Lopez de Inarra zaharrak XVII. mendean berreraikia. Hau, zorionez, oraindik zutik gordetzen da.

Erljioak hamaika gora-behera sufritu beharra izan zuen tirio eta troiarren erako tira-bira eta borroken artean. Hobeto esan, oinaztar eta ganboar berpizkunde girokoak ziruditen urte haiek. Jesulagunak bota, Jesulagunak ekarri. Era askotariko manifestapenen artean Aste Santuko prozesioak ere leku izan zuten. Geroago, Aita Langarika igorri ziguten «misiolari», gorriak omen ginen eta. Haregandik, nahi eta nahi ez, asto beltzarenak entzun behar, inkisizio giroa zekarrenez; baina, prozesiorik aski bakoitzak bere barnetik. Nork zuen inor bere senitartean bi aldeetatik zigortu gaberik? Hala ere, zorionez, gertatuak gertatu, baziren denen gainetik bakezalerik, oihuz naiz isilpean zintzotasunez lagundu zuenik, adiskidetasuna eta maitasuna erakutsiz. Bestela, zer asmo zuten Jesus Elozegi eta bere lagunak Pagoetako gurutzean? Zer zen Prietok erakutsi nahi zuena Eibarrera zetorren bakoitzean «Gernikako Arbola» kantatzen zena? Batek badaki gauzak horrenbestera nola nahastu ziren, errukarrienak gehien zigortzeko. Ezkerretik bazen iraultzaile faltsurik eta baita eskubitik fariseorik ere. Parte horren bukaerazkoa bere ikustea adierazgarria da, familiak ugaritzearen alde egin ziren karpinak, Malthus-en teoriak deuseztatu nahirik edo gerrarako jendea gehitzez.

Euskal Herriko ohitura zaharrei begira, laugarren sailak eskaintzen dizkigu zenbait argazki. Bizitza erak orokortasunez gure herriaren zernahitarako ahalmena. Aldian aldiz, bizitza eta aurrerapenen eraginez, era batzuk suntsituz, beste batzuk aldatuz eta indartuz, baina herria bere jatortasunean iraunkor. Itsasoa eta itsasgizonak, mendia eta menditarrak, hiria eta hiritarrak, marinel, nekazari, industrilari, merkatari,... gure ekosistema beti aurrera iraunkor. Hor duzu Ibarako ola-zaharreko gabia iraganaren lekuko eta langintzaren sigilu. Lanak berakin hain beharrezko dituen jai-egunak, beren jolas, dantza, eta abar, maiz folklore bihurtuak eta beti lehenaren erakusle; herri batek bere ardatza gordetzeko hain beharrezko direnak. Erakusketak horren bukaeraz hor dator 1935ean Donostian egin zen lehen bertsolari txapelketa, non agertzen diren Txirrita zahartua ondoan Basarri eta Uztapide gazte dituela eta garaiko bertsolari ospetsuak. Herri xehearen hizkera bizia zerabilen Txirritarentzat latz zen garai hartan modara zetorren hizkuntz txukuntasuna, garbizaletasuna garbikeriaren mugetatik hurbil zebilena. Baina, ez uste makurtu zenik; umorean behintzat besteen gainetik nabarmenduko zen hainbeste «maisuri» adarra joaz:

*Larogei urte gainean ditut  
nago anketako miñez,  
Donosti'ra etorri naiz  
erren aundia egiñez.  
Bi bastoiekin txit larri nabil  
pausorik eman eziñez.  
Euskera ia aztu zait eta  
erderaritan jakin ez,  
maixu batekin eskolan laster  
asi bear naiz latiñez.*

Bertsolaritzaren baliapena lortu zen urte haietan. Eusko Ikaskuntzak 1930ean Bergaran egin zituen batzarrak herri arteak zituen aztergai eta Manuel Lekuonak aurkeztu zuen bertso-laritzaren teknika eta artea zertaz, geroztik beste ikuspegi bat izan du ahozko literatura-ren mailan. Urte berean, Errenterian *Txirritaren testamentua* zeritzan liburuxka argitaratu zen, lehendik zuen ospea ez-eziki bertsolaritza bera bultzatzaera lagundu zuena. Argitaratzailea, Juan Jose Makazaga, bere moldiztegian 1931-1932. urteetan *Bertsolariya* zeritzan hilerokoaren argitaratzaile bera. Txirritaren bertsoez gainera kanta zahar bildumatxoak eta Xenpelar eta Bilintxen bertsoz liburuxkak argitaratu zituen. Aurten bete da Makazaga zenaren jaiotza mendeurrena, baina gure bertso zaleak apenas hoartu dira hainbeste zor diogunaren oroitzaz, ahazturik nonbait, eibartarrak I. Ojangurenekin bezala.

Orrialdeak aurrera, hor agertzen zaizkigu Tolosa eta Donostia, zein baino zein gehiagoka bezala ezagutu genituen Ihauteriz. Baina, hortaz, probintziko hiriburutza galdu zuenak irabazi. Bietan, konparsagileak ere halakoak, Ramos Azkarate eta Raimundo Sarriegi. Hala ere, bi hirietan, ihauterietan, gizarte ezbehar guzien gainera alaitasuna. Charles Chaplinen presentziak ordea berez zekarren umore maitakorra.

Gertakariak non, argazkilaria han. Fotografia egunkarietan hasi zenetik gertakariak irudibidez emateak bizitasuna eskaini zuen erreportaietan. Ez zen alperrikakoa txinosen esaera eta hor inon baino hobekiago betetzen zuen irudi batek mila hitzek haina. Eta, hara hor, Urgullen biran idekia zen Paseo Nuevo delakoan itsasoak urramazko kolpez urak gainezkatzera edo trenbideetatik trenan irtetzean, 1936an Añorgan gertatua bezala, guzien begiaurrera hain biziki eramango zen albistea baino adibide hoberik ba ote? Urak kanalizatu aurreko Errenteria hor agertzen zaigu, gerokoan oroitzarako ere, uholde haiek zer zirenaren lekuko. Atotxa frontoia erretzea han zirentzat zein beldurgarri gertatu zen edo Amara aldeko padurak marrea goian eta ibaiaren uholdez ematen zituen izu aldiak ere hor datoz.

Kultura ekintzak argazkiz gogoratzean ezinbestekoa zen Donostiako Orfeoiaz hasia. 1932. urteko lekukotasuna eskaintzen zaigu, baina nork ez daki probintzi osoan eta Euskal Herri osoan ez-ezik munda zabalean zer nolako abegi ona izan duen bere historia zehar? Adibiderik aski badugu Migel Pelay Orozkok egin liburuan kantari talde hortaz 1897an sortuz geroz 1978ra arteko ibilia zer izan zen. Ojangurenek urte-zetaien omenaldi hartan (1948) zionez: «Norbaiten esaera oi da, euskaldunen ezaugarri aundiña dela dantza eta abestia, ba gure erri maiteak beti egin du ori, Orfeon Donostiarrak ere ez du besterik egin berrogetamar urte onetan: abestu, baña, nola abestu? Aingeruak zeru-txiki baten abestu leikien bezin ondo».

Asentsio Martiarena beste instituzio bat zen pintoreen mugimenduan, bereziki 1920.etik. Inpresionismoaren ondoreko belaunaldiaren estiloak jarri bai zituen berak sortutako eskolare bidez, -era berriak txertatuz eta indartuz; Bilbo aldetik zetorren korrontari anaikiro lotuz.

Galera handia izan zen guretzat Lizardi olerkariaren heriotza. Sorketaz hain berezia eta hain atsegina izan bai zen gazterik joan zitzaigunarren, bere emaitza onuragarriak benetako iraultza zekarrenez. Horregatik, ondo merezia zuen hilondoko omenaldia. Tolosan eskaini zitzaion, 1933.eko martxoaren 26an, omenaldi hura, Antonio Garmendia Oteginen burutzapean hor agertzen zaizkigu Orixe, Lauaxeta, Aitzol eta beste. Ordutikakoak dira *Umezurtz olerkiak*.

Olerkari horiekin euskal literaturak berebiziko eragina izan zuen, bereziki Euskaltzaleak elkartearen sortzeaz, Jose Ariztimuño (Aitzol) buru zela. Hor agertzen zaigu hitzaldi haietako batean. Nork pentsa zezakean handik laster gaizkile bezala hil behar zutenik? Beren aldetik, artean gazte ziren Monzon-Ganuzza senar-emazteak herbesteatu beharra, ezkontza hortatik eten gabe, Urrundik olerkigintzari emanaz eta gudarien eginak oroitzean ezin ahaz senarra eta hiru semeak batean galdu zituen alargun zoroaren dolumina:

*egunaz gau egin eta gauaz irrintzi*  
*«Non dira beste zoro oiek, gudan nai zutenak asi?».*

Kulturaren mugak zabal direnez, erdal literaturarenik ere ezin falta holako liburu batean. Ez ziren denbora kaxkarrak Valle Inclán Ateneora etortzen zenekoak eta Pio Barojari San Telmo museoan estatua jarri ziotenekoak.

Garaiko politikoen zerrendatik hor ditugu, Indalezio Prieto Eibarko Kontzejuaren balkoitik mintzatuz. Bestalde, lehenago erregeak bezala, Errepublikako presidentearen bisitak eta hor ikus dezakegu N. Alcalá Zamora Errepublikako presidentea Donostiako kaleetan. Ondotik, idea desberdineko gizon asko datoz demokrazia giroa lekukotzera: Telesforo Monzonegandik Jesus Larrañagara arte, José Antonio Primo de Rivera, J. Calvo Sotelo, Jose Antonio Agirre eta José Maria Gil-Robles. Laster zetorren ekaitza somatzen ote zuten? Polbora piztutzearen lehen ondorioetarik hor ditugu Iturrino anaien hiletak Hedilla zenaren presentziaz. Bizitza, berez, gauza sakratua izanik, guzientzat edo ulertu nahi duenarentzat, zer zorigaitzokoa den heriotza erailketa kutsuz datorrenean.

Nork geldiaraziko zuen heriotza turutotsaren deia entzunaz gero? Hor agertzen zaigu berri-  
ez ere Untzaga plaza, bertan, pregoilariak bandoa, agindu berriak betearazteko, eta obeditu  
ezik urkamendira. Mari-Ospital pregoilari zaharra harri eta zuhur, zahartzaroaren ikuspegitik  
nork daki berekiko epaia ez ote zuen isilarazten. Baina, ordurako, erreketen tertzioak pro-  
bintziaz gandi, Eibarren prestatuturiko kamioi blindatuak zekarzela etsai bihurturik.

Haiek ziren ikustekoak, italiar fakzisten tropak Donostiako kale Nagusian zehar. Gero,  
moroak ere bai. Hori «kruzada» haren paradoxa. Eta, orain, inork esan ezin arabeak Euskal  
Herrian sartu ez zirenik. Umore mingotsa behar zuen argazkilariak gudarosteei «Viva la muer-  
te!» oihukatuz arengak botatzen zituen Millán Astray berebiziko fotogenikoena ateratzeko gor-  
puren zerraldo aurrean. Izan ere, hala tokatzen zitzaion. Hori guti bazen, Himmler-ek, uni-  
formez gainera, Hitler-en itxura eta itzala eskaintzen ditu Gernikako erreketaren seinale.

Gernika ez zen erreketak bakarra, baina munduko historian lehen aldiz ezagutuko zuen Ger-  
nikak gerran parterik hartu gabeko emakume eta haurren hilketa izugarria.

Familiak ihesi, buhame gisa. Gure haurtzaroko ibileren mendiak su-ta-gar hasi zirenerako  
exodo giroak hartu ginduzen. Horietako lehen argazkia oso ezaguna egiten zait, jairo nintzen  
Elgetakale barrenean, elizondoan aterea. Ahal zuenak ahal zuenarekin eta ahal zuen eran, Bizkai  
aldera bonbardeoei ihesika. Inoiz ahaztu ezinezko ibilerak. Itzultzean, ez etxe ez hiribildua  
zeneko parte zaharrik. Eibar ez zen berriz lehengo hura izango. Ojangurenen argazkietan gel-  
ditzen zaigu haren oroitza. Baina, aurrerantzean biztanleek goitik behera agindua izango zu-  
ten zer nola pentsatu; besterik ez zen zilegi.

Album honen azken partean kirolak aurkezten dira. Hortarako ezin ba hutsik egin Bera-  
zubi estadiunari. Bertatik hasi zen atletismoa indartzen kirolak amateur zirenean. Urte go-  
goangarriak haiek, fotballa bera guztiz profesionala ez zenekoak, Irungo Gal eta Donostiako  
Atotxa zelaiak ordea, Real Unión eta Real Sociedad ekipoen ospea dakarte.

Lasarten zaldi lasterketak eta automobil zirkuitoak entzute handikoak ziren. Airenautika-  
ren hastapenak ondorio gabe gelditu ziren, nere ustez gure orografia bihurri honegatik. Ema-  
kumezkoen kiroletarako ahalmena erakutsi nahia ez da oraingoa. Lerroan agertzen diren raketista  
taldearen aurpegiak oso ezagunak egiten zaizkit, Kirikixua zenak Astelena frontoian  
prestatzen zituenak direnez, eta argazkia bera zer esanik ere ez, Ojangurenen argazkietan egina. Armeria-  
ko Eskolako promozioetan bezala, ezin ziren faltatu raketisten promozioak ere, eta gure adi-  
neko neska askok hartu zuten bide hori, Espainian eta bertatik kanpo jokatzeko. Lastima izan  
zen jokoaren trabesak zirela eta jarraipenik gabe gelditzea.

Pelotari argazkien sail berezia eskaintzea nahitaezkoa zen, kirol hau bertatik sortu direnari-  
tarik munduan hedatuena denez gero. Hortarako zer gutiago eskuzkoan errege azaldu zen Atano  
III.aren argazki idekitzea baino? Gero, orrialdeak pasa eta traineru erregatak datoz; hauek  
ez dakigu hemen sortuak diren, baina bai aspalditik baleazaleak erabili zituztela zetazeoen  
ihizan.

Ziklismoan, zalantzarik gabe, ez ginen lehenak, Penintsulan ezik; harrera ona egin zitzaion  
eta bizikletak fabrikatzen ez ginen atzean gelditu. Eskiatzen berriz tolosarrak ziren nagusi,  
Aralar aski ez zutelarik Candanchu aurkitu bai zuten. Baina, igerian, donostiarrak gailen.

Azken orriak Donostiako Aurrezki Kutxak beretzat gorde ditu urte haietako irudia eskai-  
niz. Argazki bilduma honen oroitzat orotarikoak izan daitezke, nerekiko gogorapenak ez dute  
mugatzen ez irakurlea eta are gutiago begiralea. Antzerako asmoa agertu zuen Rafael Pika-  
beak 1914-1915. urteetan *Album* hura argitaratzeaz eta beharrezko iduritzen zait bere aipame-  
na. Baina zenbatek ezagutzen ote dute, eta zenbatek ote dakite hango argazkirik gehientsue-  
nak Indaleki Ojangurenen atereak zirela? Lehenarekin, nahitaez, zordun gara gerokoari begira.  
Irudiok belaunaldien lotura dakarte, oroitzak oroigarri jarrai ditzaten. Argazkiak, historiaren  
lekuko.

Juan San Martín